



**EBBren Prentsa Bulegoa**  
**EUZKADIko**  
**PRENTSA IDAZKOLA**



El único discurso válido será el pronunciado por el orador en el acto.  
Balioa izango duen diskurtso bakarra izango da hizlariak ekitaldian bertan eskainiko dueña.

### **Andoni Ortuzar. EGI Eguna 2022. Azkoitia. 2022-4-9**

Egikideok, abertzaleok, egunon! Urte bi pasa ondoren, zailtasunak zailtasun, baina hemen gaude, zuen eguna ospatzen. Ondo pasatzeko eguna da baina, baita ere, mezu politiko abertzalea gizarteari helarazteko. Benetan garai latzak bizitzea tokatu zaizue. Beno, tokatu zaigu, azken bolada honetan. Baina lasai, tira, ez da lehen aldia eta ez da azkena izango. Laino guztien azpitik, sasi guztien gaineratik, hemen gaude. Hemen dago Euzko Gaztediaren indarra. Zuek zarete, hemen eta orain, abertzaletasunaren isla, abertzaletasunaren oraina eta etorkizuna. Beraz, Alderdiaren izenean, zorionak! Zorionak, animo eta gure bultzadarik handiena zuen misioa, misio garrantzitsua benetan, ondo betetzeko!!!

Porque tenéis una misión. Una misión muy importante. Fijaos. Estamos hoy celebrando vuestro día, el día de la Juventud Vasca Abertzale, o sea, una celebración de futuro... y yo me voy a ir justo al pasado, a hace 140 años nada menos. Porque tal día como hoy, un 9 de abril pero de 1882, empezó la magnífica aventura de Euskadi hacia su libertad. Y lo hizo de la mano de un joven que entonces tenía 17 años, o sea, que era más joven que casi todos y todas las que estáis hoy aquí. Ese joven era Sabino Arana. Era domingo, Domingo de Resurrección precisamente, y estaba hablando, discutiendo, con su hermano Luis, y allí cayó en la cuenta de que él era vasco y solo vasco. Después escribiría su famosa frase “Bendito el día que conocí a mi patria y eterna gratitud a quien me sacó de las tinieblas extranjeristas”. Fue tal día como hoy y le pasó a un chaval de tan solo diecisiete años, que desde aquel día fue el mayor agitador, impulsor y organizador de la lucha de Euskadi por su recuperación nacional, por su libertad e independencia. Era como una o uno de vosotras o vosotros. Y fijaos qué lío montó. Hoy estamos aquí gracias a él. Hoy Euskadi es lo que es, y hemos llegado donde hemos llegado, porque aquel chaval se dio cuenta de que era vasco y solo vasco, y que tenía que desperezar la conciencia nacional de sus vecinas y vecinos. Y lo hizo, vaya si lo hizo. Os pido que os pongáis, 140 años después, en la misma posición que aquel ‘mutiko’ de Bilbao y tiréis para delante con aquella misión: la libertad de Euskadi. Sabino soñó la Euskadi del siglo XX; a vosotras y a vosotros os toca hacer la Euskadi del siglo XXI.

Bai, duela 140 urte, 17 urteko gazte batek jarri zuen martxan euskal nazio kontzientziaren iratzargailua. Sabino deitzen zen, eta hemen zaudeten gehienak baino askoz gazteagoa zen. Handik urte askotara, abertzaleek Euskal Aberria aldarrikatzeko egun bat aukeratu behar zutenean, egun hura aukeratu zuten, Domeka Santua. Ospakizun hura izango zen gaurko Aberri Eguna. Horregatik, datorren domekan, Pazko domekan, lehen Aberri Egunaren laurogeita hamargarren urteurrena ospatuko dugu. Lehen Aberri Egun hura Aranatarren etxeko lorategi aurrean amaitu zen, Luis eta Sabinok, eztabaidan, berrogeita hamar urte lehenago Euskadiren askatasunaren aldeko borroka hasi zuten toki berean. Historia zati hau gogora ekarriz eta, bide batez, Bilboko Aberri Egunerako deia egitearekin batera, bi gauza esan nahi dizkizuet:

Lehena: argi izan ezazue, beti, benetako mugimendu abertzalearen parte zaretela; “Euzkotarren Aberria Euzkadi da” esan zuen gazte haren jarraitzaileak zaretela; abertzale orijinalak zaretela. Eta



ez zuen bakarrik esan: egin ere egin zuen, praktikara eraman zuen goiburu hori. Harro egon zaitezte EGIkide izateaz, jeltzale izateaz. Benetako abertzaleak zarete zuek, ez ezazue sekula ahaztu.

Y la segunda cosa que os quiero decir: cada una de vosotras y cada uno de vosotros puede y debe de ser el Sabino de 2022. Os toca tomar ese testigo. Él lo hizo y mirad dónde estamos hoy. Él estaba prácticamente solo y fijaos qué fuerza y qué capacidad tuvo para, en pocos años, prender fuego a la llama nacional vasca. ¡¡¡Ahora somos, sois, más, muchas más, muchos más, y hay que continuar y conseguir la libertad de este País!!!

Zuei dagokizue orain, duela urte pila bat Xabier Arzalluzi tokatu zitzaion moduan, konpromiso hori hartzea. Oso epoka konplikatuan ere, Xabierrek erabaki zuen Sabinoren bidea hartu behar zuela. Bidea eta lana, bai eta bere konpromiso abertzalea ere Herri honekin. Ibilbide itzela egin zuen, erraldoia. Herri honek eta Alderdi honek ez dute sekula nahikoa eskertuko. Eredu bikain bi hauek ekarri nahi izan ditut gaur etorkizunaz hitz egiteko. Baina etorkizunaz hitz egiteak eskatzen digu orain aldiaz hitz egitea. Zuek zarete Alderdi honen eta Herri honen etorkizuna. Euzko Gaztediren Indarra zarete zuek, oraina zaretelako. Eta orainaldi honek aukera ematen dizue Aberri honekin topera inplikatzeko. Garai berezia bizi dugu orain, benetan garrantzitsua. Eta eskatzen dizuegu aurrera egitea, pausua ematea, konpromisoa topera hartzea. Euskadi zuen zain dago. Euskadik behar zaituzte. Zuek guztiok behar zaituzte.

Euskadi os necesita, aunque parezca una perogrullada lo que os voy a decir, para construir la Euskadi correcta. Sí: no vale construir cualquier Nación. Hay que construir una Euskadi libre de hombres y mujeres libres. El concepto de libertad es básico para nosotras y nosotros. En nuestro grito, cuando gritamos “Gora Euskadi Askatuta!”, conjugamos esos dos elementos: Euskadi y libertad. Precisamente habéis elegido ese ‘leit motiv’ como eslogan este año: ‘Askatasunaren bidean’. Os traigo esto a colación porque el otro día, el domingo pasado, en la entrada del frontón donde se jugó la final del Parejas, la organización juvenil disidente de la Izquierda Abertzale, la ahora activa Gazte Koodinadora Sozialista, firmaba una pancarta con la leyenda “Aberri Gorria”. Para ellos, el término “libertad”, la Euskadi libre, ya no es el objetivo. Su objetivo es una Euskadi roja. En su proyecto mutilan el futuro de Euskadi, le quitan dos colores: el blanco y el verde. Proponen para Euskadi un futuro monocolor que ya fracasó en la antigua Unión Soviética, y de aquellos barros... hoy tenemos en Rusia al tirano y neoimperialista de Putin. Un proyecto trasnochado que está sumiendo en la miseria a todos los Países que son referente para la Izquierda abertzale. Pensad si no en Venezuela... No podemos dejar el futuro de Euskadi en manos de quien quiere imponer su proyecto político por encima de la libertad y la pluralidad. La Euskadi que queremos debe ser para todos y todas, y debe estar basada en la libertad. Libertad para ser y para decidir. Libertad para construir una Nación sin cadenas ni exteriores ni interiores. Una Euskadi multicolor, no ese rojo que tantas veces aquí, en nuestro país, pero también fuera de él, se ha hecho a base de sangre de inocentes.

Ezker Abertzaleko gazteek aldarrikatzen duten ‘Aberri gorriak’ ez du pena merezi. Benetan, ez du merezi. EGIrena, Alderdiak proposatzen duena, askotariko koloreak dituen Euskadi da. Ez da kolore bakarreakoa: Euskadi gorri, berde eta zuria. Etxe bat herri honetan bizi garen pertsona guztiontzat. Adurretik Ebroraino ‘Zazpiak bat’ lurraldea egiten duena. Herrialde askeek osatuko duten lurralde askea: bakean bizitzeko, oparotasunarekin, justizia sozialarekin. Beste herri eta nazioekin



adiskidetuta eta harmonian biziko den Euskadi. Horregatik, gure borrokak, Euskadi askea eraikitzeko borrokak, Ukraina askearen alde egitera eraman gaitu orain. Ez dago aitzakiarik: ez OTANik, ez inperialismo yankirik, ez ustezko montajerik ere. Batzuek horrenbeste miresten duten Putin hori Ukrainan egiten ari dena genozidioa baino ez da, basakeria!

No podemos permitir que estos revolucionarios de salón intenten desviar la atención sobre la tragedia que está viviendo el pueblo ucraniano. No hay excusas que valgan: ni OTANes, ni imperialismos yankis, ni supuestos montajes que valgan. Lo que está haciendo su admirado Putin en Ucrania es un genocidio, es una atrocidad, como nos hicieron a nosotros hace 85 años en Gernika, Durango, Otxandio... También entonces la propaganda franquista dijo que habían sido nuestros gudarís quienes prendieron fuego a Gernika. ¡Nunca más! ¡Gernika nunca más, Mariúpol nunca más, Bucha nunca más! No más guerra, sí más libertad. Por eso, que se vayan con su proyecto de “Euskadi gorria” al Kremlin, que aquí nosotras y nosotros queremos una Euskadi libre, una Euskadi en colores, ¡rojo, verde y blanco!

Vivimos tiempos de engaños políticos, de personajes sin fondo, de tics autoritarios, de populismos baratos. Aludía antes a ese sector emergente y disidente que tantos dolores de cabeza les está dando a los ‘bildukides’ y a la juventud oficial, que ve cómo les acusan de ‘epelas’ y vendidos al sistema. Pura palabrería, pura impostura: son hijos e hijas de la burguesía, viven como burgueses, se aprovechan de la Euskadi del bienestar que hemos construido, pero se presentan como revolucionarios, se creen la nueva reencarnación del proletariado y de las clases populares.

Pero, para cara, la de Ayuso, que anduvo ayer por Euskadi. Otro modelo de impostura, de populismo barato. Otra que va de adalid de la libertad, pero ella usa la libertad para favorecer a los que más tienen y bajarles los impuestos, aunque la calidad de los servicios públicos y la atención a los más necesitados sean sacrificadas. Pues bien: ni la “Euskadi gorria” de unos ni la España ‘low cost’ de esta otra. Egikideok! Gu, gure bidetik! Gu, herriarekin eta herriaren alde! Gu, askatasunarekin eta askatasunaren alde! Gu, Euskadirekin eta Euskadiren alde!

Gora Euskadi askatuta!!!